



Maria Jose Llergo musikaria bitan arituko da Iruñean: 25an Baluarte jauregian, eta 26an udaletxeko balkoian. BERRIA

‘Tablao’-ak irekitzeko prest

Flamenco on Fire jaialdia gaur eguerdian abiatuko da • Igandera arte, ia 30 proposamen eskainiko dituzte Iruñeko eta Tuterako areto eta karriketan • Eguerdi eta iluntzetan izanen dira kontzertuak

Yasmine Khris Iruñea

Erljio ilun bat. Horrela definitzen zuen flamenco Miguel Unamuno idazleak. Denon ulermenean ez dena. Topikoetatik harago, sarritan, genero musikala gizartearen muturretan kokatu izan zuten: musika genero herrikoa, balio gutxikoa, edo, alderantziz, musika elitista, entzule arrunten irismenetik urrun. Iluntasunetik ateratzeko helburua dute, bertzeak bertze, Flamenco on Fire jaialdiaren antolatzaileek. 2014tik, Nafarroa flamenkoaren erakusleho bihurtzen da udaro, tokiko eta nazioarteko artista anitzekin.

Bederatzigarren aldia ate joka dago, eta aurten Iruñeko eta Tuterako oholtzetara azalduko dira flamenkoaren ahots klasikoak eta proposamen berritzaileak.

Emanaldiak eginen dituzte gaurtik igandera bitartean, eta, bi urteren ondoren, COVID-19aren kontrako neurririk gabe.

Udako agendan finkaturiko ekitaldia da Flamenco on Fire, eta zaletasuna geroz eta gehiago nabaritu izan dute egileek. «Nafarroa osora eraman nahi dugu flamenkoa, eta leku ederretan kontzertuak eskaini», kontatu du Arturo Fernandez jaialdiko zuzendariak. Izan ere, hilaren 12an aperitifia izan zuten flamenkozaileek, Vianan. F on Fire zikloaren kariatz, lehenbiziko saioa eskaini zuten Sandra Carrasco eta Joni Jimenez artistek udaletxeko balkoian, eta gauean, La Fabi eta Alba Heredia gehitu zitzaizkien. Voces ikuskizun polifonikoan. «Hasiera zoragarria» izan zela dio Fernandezek: «Kantatzeko

oso modu desberdinak jarri zituen agerian, dantza zertzelada batekin». Jaialdi nagusitik independente moduan antolatzen dute F on Fire, eta izandako harrera «paregabea» nabarmendu dute.

Tradizioei ere ez diete hutsik egin. Urtero bezala, gai bat aukeratu dute, eta errezitalak, hitzaldiak eta bestelakoak emanen dituzte hari horren inguruan. Iaz *Zer da flamenkoa?* galderari erantzun ondoren, flamenkoaren lirika jarri dute erdigunean aurretik, hitzen garrantzia azpimarratzeko. «Jakin-mina pizteko eta flamenkoa hari buruz asko ez dakitenei hurbiltzeko asmoa dugu», azaldu du Fernandezek. Bizitzaz, heriotzaz, maitasunaz... Flamenkoak kantatu egiten duenaz. Hemen ere, kontzeptu ab-

traktuak alde batera utzi nahi dituzte antolatzaileek. Izan ere, funtzio dibulgatzailea eman nahi diote festibalarari. «Jendeak kantatzen den horretan arreta jartzen badu, uste dugu hasiera bat izan daitekeela flamenkoaz ez dakienarentzat ere».

Entzule berrien bila

Jaialdiak ateak irekiko ditu gaur Tuteran, eguerdian. Erriberako hiriburuko udaletxeko balkoian emanen dute lehenbiziko kontzertua bi artista nafarrek, 12:00etan, Alberto Jimenez Gilabert *Bayron*-ek eta Bruno Jimenezek; ondoren, Jose Montoya Carpio *El Berenjeno* eta Manuel Heredia arituko dira eguerdi partean. 21:30etan, berriz, Gaztanbide aretoan, Carmen Linares sona handiko abeslaria izanen da,

Pepe Habichuela gitarra jotzailearekin batera. Gau berean, Iruñeraino helduko da festibalaren oihartzuna: Rafael Riqueni Sevillako (Espainia) gitarristak emanaldia emanen du Nafarroako Jauregian, 22:30etan.

Urtero jaialdian izaten diren kontzertu handietan flamenkoaren musikari gorenak biltzen dira, bai artista ospetsuak eta bai berriak. Izan ere, Sabcas maisuaren izena eta ondarea nabarmentzen duen jaialdiak gaur egungo flamenko musikarien aldeko apustua egiten du aldi bakoitzean, ikus-entzule berriak erakarritza sormena piztuz. Aurten, adibidez, Jose Merce, Rafael Riqueni eta El Purili izen klasikoek partekatuko dituzte oholtzak artista gazteago edota flamenkoaren agertokian lehenbiziko pausoak egin dituz-

ten musikariakin. Maria Jose Llergo abeslariak (Pozoblanco, Espainia), errate baterako, 28 urte ditu, eta bere lehenbiziko lana aurkeztuko du: *Sanación*. Goya sari bat jaso zuen *Te espera el mar* abestiarekin, eta, azkenaldian sareetan eginiko inkesta baten arabera, Eurovisionen hurrango aldiari aurkezteko hautagairik gogokoenaz izango litzateke Espainian. Bertzalde, Israel Fernandez (Toledo, Espainia, 1989) da aldi honetan gehien espero diren kantautoreetako bat. Haren azken argitalpenek arrakasta handia izan dute



Jakin-mina pizteko eta flamenkoa hari buruz asko ez dakitenei hurbiltzeko asmoa dugu»

Arturo Fernandez
Flamenco on Fire-ren zuzendaria

(*La Inocencia, Amor*), eta flamenko eszenako ahots karismatikoenetakoa da. Kontzertu guztiak 21:30ean izanen dira, Baluarte jauregian, Maria Toledorena izan ezlik: 20:30ean izanen da, Gaiarre aretoan.

Hamaika proposamen

Flamenco on Fire jaialdi «heterodoxo» gisa definitzea gustuko dute antolatzaileek, izan artisten estiloagatik edo proposamen eskaintzagatik. Hain zuzen ere, kontzertu handiekin batera, Flamenco on Fire jaialdiak bertze hainbat proposamen egiten ditu. Kontzertuak balkoietan instituzio bihurtu dira urteekin, eta harrera ona egiten diete karrikako entzuleek. Formatu herrikoia-goto batez, bikote xume bat osatu ohi dute ahotsak eta gitarrak, eguerdiko ordua biguntzeko.

«Flamenco partekatzea da gure helburua, eta, horretarako, karrikak dibulgazio laborategiak ditugu, non flamenkoa ulertzeko modu garaikide eta tradizionalak erakusten baititugu», gehitu du Fernandezek. Gaur, bi kontzertu izanen dira Tuterako karrikan, 12:00etatik aurrera; eta Iruñean, berriz, egunero hiru hitzordu izanen dira. «Pozik gaude, halaber, eskuzabalak izateagatik. Luxua da balkoi bat inauguratzera datozen artistez doan gozatzeko aukera izatea».

Paraleloki, Flamenco on Firekin zinema ziklo bat aurkeztuko du. Historikoki flamenkoa elikatu duten istorioen eta bizipenezatiez osatuta egongo da. Besteak beste, La Paquera, Terremoto eta



Sandra Carrasco abeslaria eta Joni Jimenez gitarra jotzailea, hilaren 12an, Vianako udaletxe bakoian. INIGO URIZ / FOKU



Israel Fernandez eta Diego del Morao artistek *Opera flamenca* aurkeztuko dute igandean Baluarte jauregian. BERRIA

Manolo Sanlúcar garrantzi handiko artistak jendeari hurbiltzeko modu desberdina izango da hori. Film luze eta laburren proiektioak eginen dira, eta mahai inguruak antolatuko dituzte Civivox Kondestablearen gunean.

Berritasunen aldetik, aurtur lehenengo aldiz, Flamenco saria banatuko dute, musikariak izan gabe flamenkoaren alde egin duten pertsonak ezagutarazi eta haiei aitortza egiteko helburuarekin. Lehenengo urte honetan, hiru pertsona edo erakunde proposatu dituzte antolatzaileek saria jasotzeko: Jose Maria Velazquez-Gaztelu poeta eta zinema zuzendaria, Pepe Lamarca argazkilaria eta Corral de la Moreria Madrilo *tablao*-a. Saria zeinek

jasoko duen bihar jakinaraziko dute.

Azkenik, jaialdiak umeendako kultur aukerak ere eskainiko ditu: Francisco Suarez *El Trombo*-k dantza tailer bat emango du. Jarduera asteburuan izanen da, 12:30ean, Ezpeleta jauregian. *Gastrosabicas* ibilbidea ere sortu du Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Elkarteak, jaialdiari sukaldaritzaren aldea ere jartzeko. Aste osoan izanen da Iruñean eta Tuteran.

Bertako flamenkoa

Osasun neurrien desagerpenarekin batera, publikoaren itzulera zoztu da Fernandez. Sumatu izan du urte urte nafar entzuleen interesez geroz eta handiagoa. «Esta-

tuaren hegoaldeko jarraitzen da jaialdia, eta artistek beraiek etorri nahi dute hona», ziurtatu du. Baina tokiko artisten presentzia ere zaintzen dute antolatzaileek, eta, iaz bezala, aurtur bi nafar musikari irekiko dute festibala: «Jaialdiak babesten du bertako talentua, eta hori azpimarratzeko da».

Flamenco on Fireren formatua aldatu izan den arren -2014ko lehenbiziko aldiari bederatzi egunez egin zen-, ziurtatu dute esentziak bere horretan segitzen duela: «Lortu dugu konbinatzea antzerkia, dantza, karrikako artea, kontzertu nagusiak eta abar. Azkenean, gauza bera egiten genuen duela bederatzi urte».

EGITARAUA

Gaur

12:00: Alberto Jimenez Gilbert Bayron eta Bruno Jimenez. Tuterako udaletxe bakoian.
12:45: Jose Montoya Carpio *El Berenjeno* eta Manuel Heredia. Tuterako udaletxe bakoian.
19:30: Ismael de la Rosa *El Bola* eta Yerai Cortes. Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioan.
21:30: Carmen Linares eta Pepe Habichuela. Tuterako Gaztanbide aretoan.
22:30: Rafael Riqueni. Nafarroako Jauregian, Iruñean.

Bihar

12:00: Juan Villar eta Nono Reyes. Iruñeko udaletxe bakoian.
12:45: Javier Ruz eta Carlos Urroz. La Perla hotelaren bakoian, Iruñean.
19:45: Rafael Riqueni. Ezpeleta jauregian, Iruñean.
21:30: Maria Jose Llergo. Baluarte jauregian, Iruñean.

Ostirala

12:00: Maria Jose Llergo eta Paco Soto. Iruñeko udaletxe bakoian.
12:45: Jolis Muñoz eta Carlos De Jacoba. La Perla hotelaren bakoian, Iruñean.
19:45: Juan Villar eta Nono Reyes. Ezpeleta jauregian, Iruñean.
21:30: Jose Merce. Baluarte jauregian, Iruñean.

Larunbata

12:00: Jose Merce eta Manuel Cerpa. Iruñeko udaletxe bakoian.
12:30: Francisco Suarez. Ezpeleta jauregian, Iruñean.
12:45: Manuel Machado eta Jose Maria Cortina. La Perla hotelaren bakoian, Iruñean.
19:45: El Purili eta Antonio Moya. Ezpeleta jauregian, Iruñean.
20:30: Maria Toledo. Gaiarre antzokian, Iruñean.
21:30: Estevez & Paños. Baluarte jauregian, Iruñean.

Igandea

12:00: Juana de la del Pipa eta Manuel Parrilla. Iruñeko udaletxe bakoian.
12:30: Francisco Suarez. Ezpeleta jauregian, Iruñean.
12:45: Rafael Jimenez *El Falo* eta Claudio Villanueva. La Perla hotelako bakoian, Iruñean.
19:45: Mari Peña eta Antonio Moya. Ezpeleta jauregian, Iruñean.
21:30: Israel Fernandez eta Diego del Morao. Baluarte jauregian, Iruñean.